



Astigarragan, 2008ko azaroaren 14an.

Jaun/andre agurgarria:

Honakoaren bidez, Astigarragako Arantzazuko Ama Ikastolara iritsi zaigun gutun/kexa bat zuzentzera gatozkizue.

Aspaldidanik eta urtero Ikastolak, Udaletxeko Enara ingurugiro taldearen gidaritzapean, hainbat arlo lantzen ditu ingurugiroarekin edo/eta ikasgeletan lantzen ari garen gairen baten inguruan. Oraingo honetan, bi taldek, sagardoaren inguruan lanean hasteko asmoa dutenez, Enara taldeak, bere ohiko ibilibidearen barruan, Sagardo Etxea eskaini digu.

Elkarlan hau, dohainik izan ohi dugu beti; horregatik, sagardo etxerako sarrera-ordainketa eskatu diegunean gurasoei, hauetako batzuk desadostasuna azaldu digute, bai ahoz, bai idatziz, herritarren zerbitzu den edo izan beharko luken hori bertako herritarrek ordaindu behar izanagatik.

Iritsi zaigun idatzia, "behar den lekura" helarazteko eskatu digutenez, hemen doakizue aipatutako idazkia.

Besterik gabe, har ezazu gure agurra.

Blanki Soraluze Arrizabalo
Arantzazuko Ama Ikastolako Ikasketa Burua



ASTIGARRAGA - ERGOBIA - LO/CLAETA MARTUTENE
Martuteneko Ibilbidea, 48
20014 DONOSTIA • SAN SEBASTIÁN
Tel. 943 47 02 35 • Fax 943 45 88 54

94355 1262

OSO ONDO IRUDITZEN ZAIGU UMEEKIN JARDUERA
DESBERDINAK EGITEA ETA INGURUGIROARI BURUZKOAK
BADIRA GEHIAGO. BAINA NAHIKO LOTSAGARRIA
IRUDITZEN ZAIGU ASTIGARRAKO IKASTOLAKO
IKASLEEK SAGARDO-ETXEAN SARTZEKO ORDAINDU BEHAR
IZATEA.

ULERTZEN DUGU ARDURA EZ DELA IKASTOLARENA,
HORREGATIK GURE PROTESTA BEHAR DEN LEKURA
IRISTEA NAHI GENUKE.

GURASO TALDE BAT.

GEMA ETXEBERRIA

LORENA MAURIZ

BEGOÑA VELASCO

PEPI MARCHANTE

M^o JOSE SANTAMARIA

M^o EUGENIA ARANDA

INA URANGA

KORO ZABALEGI

M^o ROSA BOO

JAIONE ZERAIN

ESTRIZALIZ MUNARRIZ

EBA ALBERRO

JUNCAL GAMAZO

OLGA MUGERZA

MARIAN MATEOS

AINHOA DUKE

GARBIÑE SANMIGUEL

AXIER ZUARNABAR

KRISTINA LETAMENDI

ESTITXU LLADO